
HERNANI. UDAL AURREKONTUAK 2016: Proposamenak egiteko saio irekiak

-2015-04-21. SAIOAREN AKTA-



BILERAREN XEHETASUNAK:

- Bilera zenbakia: 1
- Xede taldea: Jarduera fisikoa eta kirola, Lurralde antolaketa eta hirigintza, Etxebizitza politika, mugikortasuna eta aniztasun funtzionala.
- Data: 2015-04-21
- Lekua: Biteri Kultur Etxea
- Hasiera ordua: 19:00
- Amaiera ordua: 21:00

DINAMIZAZIOA:

- Parte hartzaile kopurua: 4 herritar, 4 gizon. 2 teknikari eta ordezkari politiko 1.
- Dinamizatzaileak: Susana Martinez eta Maitane Barrenetxea

1. ONGI ETORRIA ETA AURKEZPENA

Luix Intxauspe Hernaniko alkateak saioari hasiera eman dio. Lehengo urtean abian jarritako esperientzia jarraituz, aurtengoan ere Erabaki Hernani Decide prozesua martxan jartzea erabaki dugu. **Herritarrek Udal politika publikoetan duten partaidetza sustatzeko eta herritarren artean beste kultura politiko bat sortzeko** asmoarekin abiatu zen prozesua.

Lehengo urteko prozesua izan zen azken urteetan Aurrekontuarekin zerikusia duen lehendabizikoa, eta orduan esan zen bezala, **urtez urte errepikatzeko asmoarekin** sortu zen. Urtetik urtera ere prozesuan erabakigai jarriko diren atalak zabalduz, etab.

Alderdi ezberdinen artean adostutako prozesu bat izan da, eta hartutako konpromisoa honela laburtzen da:

- Udal Aurrekontuaren inguruko eztabaida eta erabaki prozesurako **500.000€** izango ditugu aurten.
- 500.000€ hauetatik 50.000€ izango dira urtez urte errepikatzeko diren proposamenetan. Proposamen mota hau 3 urtetik behin errebisatuko da.


Udalean nagusi diren **3 alderdi politikoaren adostasunarekin** abiatu da aurten prozesua, beraz, EAJ-PNV, PSE-EE eta Bilduren babesa du prozesuak.

Prozesu honetako lanketa metodologiko eta teknikoaren ardura **Aztiker** Ikergunearen esku egongo da. Euren laguntza izango dugu dinamizazioan eta prozesuaren lanketa teknikoan.

Aurkezpenaren ondoren, lehengo urtean Erabaki Hernani prozesuan atera ziren proiektuak errepasatu ditu Alkateak:

2015EKO AURREKONTURAKO PROIEKTUA	EGUNGO EGOERA
Herriko parke eta kaleetan edukiontzi gehiago jarri (14 multzo inguru)	Edukiontzi gehienak jarri dira, auzoetako ordezkariekin hitz egin ondoren, beharrezkoak ikusi diren puntuetan, besteak beste Lizeagan, Zikuñagan... Oraindik batzuk jartzea falta da.
Behar bereziak dituzten haurren integrazioa eta sorkuntza lantzeko dirulaguntza	Diru laguntza eman aurretik oinarri batzuk prestatu behar dira diru laguntza horiek emateko baldintzak zehazten, etab. Lanketa hori egiten ari dira momentu honetan, eta espero da lehenbailehen argitaratzea.
Herriko oztopo arkitektonikoak lantzeko Irisgarritasun partida handitzea	Koxkak urtero izan ohi duen 30.000€ko partida aurtengoan 60.000€koa da. Hainbat hobekuntza eta lanketa egin dira dagoeneko, Udaletxe eta Elizako tunelaren ondoan egin den Ranpa dugu horren adibide. Hala era, kantitate hau urte osoan zehar kudeatzen jarraituko dute, hobekuntzak eginez toki ezberdinetan.
Herriko haur parkeren bat estaltzea	Herriko haur parkeen inguruko azterketa bat egin da, bakoitzaren azpiegitura, erabilera, etab. ezagutzeko. Erabaki da ziurrenik atletismo pistan dagoen parkea estaltzea. Uda ondoren hasiko dira obrak, urria aldera.
Zinkoeneatik Floridako tren geltokiraino bidea argizatzea	Argiztapena berritu da Zinkoeneatik Floridarainoko bide guztian. Farola berriak dira, gehiago eta hobeto argitzen dute.
Indarkeria jasaten duten emakumeentzat arreta psikologiko eta juridikorako zerbitzua sortzea	Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera lantzen ari dira proposamen hau, eurek eskaintzen duten zerbitzuekin konpatibilizatzeko. Aldundiarekin azken xehetasunak adosten direnean jarriko da martxan.
Komun publiko bat gehiago jarri	Komuna non jarri erabakitzeko oinezko ibilbideak aztertu dira, baita parkeak ere. Honen ondorioz erabaki da Atletismo pistaren inguruan jartzea komun hau. Oraindik ez dago zehaztuta obrak noiz hasiko diren.
Esertzeko banku gehiago jartzea (10 inguru) eta dauden batzuk altueraz igo	Banku gehienak jarri dira, baten bat falta da jartzeko, Urbieta kalean batzuk, herriko beste hainbat lekutan besteak.
Saskibaloian aritzeko kanastak jartzea altuera baxuan bai haurrentzat bai gurpildun aulkian daudenentzat	Oraindik ez da zehaztu non jarriko diren.
Plaza berriko lurra aldatzea ondoko kaleetan dagoen granitozko lurra jarriaz	Plaza berriko lurraren obra duela bi aste hasi zen. Ekainaren 6rako bukatua egotea espero da.
Etxegabetze arrisku egoeretarako kreditu poltsa bat sortzea	Kreditu poltsa bat sortzeko baldintzak aztertzen ari dira juridikoki. Izan ere, kreditu poltsa horretatik dirua emateko baldintzak zehazten ari dira momentu honetan. Horrez gain, ondoren dirua bueltatzeko baldintzak pentsatu behar dira. Lanketa hau Stop Deshauciosekin batera egiten ari dira.
Alokairua sustatzeko dirulaguntza	Gazte Kontseiluarekin eta Stop Deshauciosekin landu dute proposamena. Nahiko aurreratua dago baina Uztaile arte ez ateratzea aurreikusten da (gazteek hala eskatuta), modu honetan 2014ko errenta aitortpena hartuko litzake kontuan.

Luix Intxausperen aurkezpena amaitu denean, Aztikerreko dinamizatzailea den Maitane Barrenetxeak Udal Aurrekontuen inguruko partaidetza prozesu honek izango dituen fase eta urrats ezberdinak zeintzuk izango diren argitu du:



Aurtengo prozesuak badu berezitasun bat, izan ere, **Gipuzkoako Foru Aldundiak** ere partaidetza prozesu bat jarri du Aurrekontuen inguruan. **Beste 500.000€ jarri dituzte erabaki gai Buruntzaldeako Eskualderako**. Ikuspegi honetatik, Hernanin proposamenak jasotzeko garai honetan, bi arloetako proposamenak jasotzen ari gara. Ondoren bereiziko ditugu Aldundiaren prozesuan jarraituko duten proposamenak, eta Udalaren prozesuan jarraituko duten proposamenak.

2. BEHARRIZANAK

Aurkezpenaren ostean, gaurkoan lantzeko izango ditugun gaien inguruko eztabaidari ekin zaio. Eztabaida honen helburu nagusia herriaren egungo egoera aztertzea izan da arlo horiei dagokionean.

Horretarako erabili dugun dinamika arlo bakoitzaren indargune eta ahulguneak identifikatzera bideratua egon da. Bi galdera nagusiri erantzun diete herritarrek:

- Gaur egun arlo honetan dagoenaren inguruan **zer AZPIMARRATUKO zenuke?**
- Zein uste duzu dela arlo honetako **HUTSUNE nagusia?**

Galdera hauei erantzunez, herritarrek euren ekarpenak egin dituzte arloka:



KIROLA

Gaur egun dagoenaren inguruan zer AZPIMARRATUKO zenuke?	Zein uste duzu dela HUTSUNE nagusia?
<ul style="list-style-type: none"> • Futbol jardueran, Emakume eta gizonak, gero eta gehiago dabilta futbol jardueraren inguruan. Emakumeen taldeak egonkorrak dira eta hazi dira. • 500 pertsonetatik gora dabilta asteroko dinamikan. • Kirol gune anitzak daude, azpiegitura anitzak daude (atletismo, polikiroldegia, santa barbara eskalada, landare...Orokorrean azpiegitura eta instalazio onak daude. 	<ul style="list-style-type: none"> • Futbol azpiegiturak oso zaharkituta daude, egoera txarrean. Aldagela falta eta zaharrak, argiztapen exkaxa, bilera gelarik ez, zelaiaren egoera prekariora (ikasturte honetan ezin erabili!). Ibaiarekin arazoak direla eta, inguruko herrietan egiten dira entrenamenduak • Kiroldegia zaharkitua eta higatua/hondatua • Saski baloirako kantxen gabezia dago. Hernanin lehentasun gehiegi ematen zaio Futbol eta Rugbyari, eta Saskia ez da prestigiatzen.
Zuk zein behar sumatzen duzu arlo honetan?	Zure ustez, zer behar du Hernanik?
<ul style="list-style-type: none"> • Zubipeko zelaian hobekuntza orokorrak egin beharra dago aldagelak, bulegoak, argiztapenak, bilera gela.... 	

HIRIGINTZA

Gaur egun dagoenaren inguruan zer AZPIMARRATUKO zenuke?	Zein uste duzu dela HUTSUNE nagusia?
<ul style="list-style-type: none"> • Hirigintza antolaketa orokorra nahiko egokia da, giza espazioetan oinarritzen da, gizatiarturiko espazio asko daude, bizitza asko dago. • Dagoen hirigintza antolaketak lor dezake mugatzea eta behartzea auto eta motor antolaketa. • "herriaz maitemintzea sortzen zaigu askori" 	<ul style="list-style-type: none"> • Azken 4 urteetan norabideetan emandako aldaketak ez dira egokiak, zailak eta aldrebestuak. • Espazio asko oso antolatua dago "kotxe eta garraio ikuspegitik". • Espazioak falta dira paseorako, eta txakurrak solte paseatzeko.
Zuk zein behar sumatzen duzu arlo honetan?	Zure ustez, zer behar du Hernanik?
<ul style="list-style-type: none"> • Soluzioa bilatu behar zaio INSTITUTO/DBHko sarrerari. Dagoeneko arazo bat baino gehiago egon baita. • Boulebarizatu behar da goiko errepeidea "zirkuito-santa barbara" ibilbidea 	

ETXEBIZITZA

Gaur egun dagoenaren inguruan zer AZPIMARRATUKO zenuke?	Zein uste duzu dela HUTSUNE nagusia?
<ul style="list-style-type: none"> Oso gazte gutxi dira etxebizitza egoera batean sartzen direnak gurasoen edo familiaren babesik gabe. Benetan behar egoeran dauden pertsonak ezin dute ez alokairu baldintzetan ez erosketa baldintzetan sartu. Egoera larrietan eta estremoetan daudenek ez dute aukerarik egungo sisteman. 	<ul style="list-style-type: none"> Gehiegizkoa da eraikitzen ari dena ibai inguruetan, eta uholde zonaldeetan. Ez da frenatzen ari JABEGOA ALOKAIUAREN alde. Sobredimentsionatua daude auzo batzuk: Florida eta Sagastiola. Hipoteka duen jende askok du arazoa. Doako justizian arazoak daude, eta aukerarik ez espezializatutako abokatuak kontratatzeko.
Zuk zein behar sumatzen duzu arlo honetan?	Zure ustez, zer behar du Hernanik?
<ul style="list-style-type: none"> Badago gazteriaren artean alokairurako kultura, eta gehiago jarri behar da balioan. Sustatzea kultura koordinatua alokairuak/gazteak eskeman. Osatu behar da etxebizitza kartera bat, "erabileran" jartzeko behar denetan Egoera kaxkarrenetan dauden pertsonak erraztu eta bermatu etxebizitza eskubidea, horiek baitira etxebizitza batera sartu ezin dutenak. Aholkularitza juridikoa behar da, espezializatua eta esperientziaduna (hipoteka eta kaleratuen kasuetan). Ikerketa esparruak ireki behar dira, "dación en pago" egoerei eta "desjabetze" egoerei aurre egiteko. Asko dago ikertzeko juridikoki eta bestela ere. Kasko historikoan dauden eraikin zaharrak eta etxebizitzak erosi gazteen alokairu eta erabilerarako (kaskoa gaztetzeko helburua legoke zeharka besteak beste). Gazteentzako etxebizitza egoera/ildo ezberdinak aztertu eta landu. Mikrokreditoak aztertu/landu. Ezjabetze egoeran dauden pertsonak aholkularitza juridikoa eskaini (horren zerbitzua sortu). 	

MUGIKORTASUNA	
Gaur egun dagoenaren inguruan zer AZPIMARRATUKO zenuke? <i>¿Qué subrayarías de lo actualmente existente?</i>	Zein uste duzu dela HUTSUNE nagusia? <i>¿Cuál es la principal carencia?</i>
<ul style="list-style-type: none"> Asko egin da auzo eta kale erabilerarako irisgarritasunari dagokionez 	<ul style="list-style-type: none"> Hutsune nabarmena dago "itsuen" egoerarako. Eta hirigintza aldetik eginiko hobekuntza batzuk itsuen kalte izan daitezke (aldapa zulodunak) Hobekuntzak egin dira hainbat espazioetan "ezgaituen" egoerari begira baina gero bestelako erabilera ematen zaie (jetsierak espaloietan, eta erabiltzen dira aparkatzeko errazago).
Zuk zein behar sumatzen duzu arlo honetan? <i>¿Qué necesidad sientes en este ámbito?</i>	Zure ustez, zer behar du Hernanik? <i>¿Cuál es la principal necesidad en este ámbito?</i>
<ul style="list-style-type: none"> Hobetu behar da irisgarritasuna lokal eta komertzioetan, askotan ezinezkoa baita . 	

Galdera erantzunetarako tarte egon da dinamikarekin amaitu ondoren:

- ***¿Porqué se ha decidido poner a decisión ciudadana la misma cantidad del año pasado? ¿Hay intención de incrementar la cantidad o diferentes partes del presupuesto ene l futuro?***

Este año se ha decidido poner en marcha la misma cantidad, con el objetivo de ir asentando y creando la cultura participativa en el pueblo. La intención es ir aumentando las partidas que se deciden o debaten, como por ejemplo empezar a debatir no solo de los gastos, sino también sobre los ingresos.

3. PROPOSAMENAK

Hausnarketaren ondoren, nahi izan duen herritar orok proposamenak luzatzeko tartea ireki da. Horretarako herritar bakoitzak fitxa bat bete du, eta ondoren, norberak talde osoari aurkeztu dio.

ETXEBIZITZAren arloko proposamenak

- *Fomentar el alquiler social*
- *Viviendas compartidas para jóvenes*
- *Microcréditos para personas en exclusión social*
- *Asesoramiento jurídico para personas en riesgo de perder vivienda, no poder defenderse en los tribunales de cláusulas abusivas, etc.*
- *Adquisición de viviendas en el casco histórico para dedicarla al alquiler a bajo costo para jóvenes después de su rehabilitación. Preferentemente edificios enteros*

HIRIGINTZAren arloko proposamenak

- *Buscar solución a la entrada de la Ikastola y el Instituto en Santa Barbara*

KIROLAren arloko proposamenak

- *Realizar mejoras en el campo de Zubipe: vestuarios, oficinas, iluminación del campo, valla del campo*

4. HURRENGO URRATSAK

Proposamen guztiak amaitu ostean Aztikerreko dinamizatzailleek prozesu honek izango dituen hurrengo fase eta urratsen berri eman dute:

- ✓ Proposamenak egiteko epea apirilaren 30ean bukatuko da. Ordura arte, herritar orok proposamenak egiten jarraitzeko aukera izango du.
- ✓ Prozesu honetan jasotzen diren proposamen guztien **aurkezpen publikoa egingo da, maiatzaren 6an**, arratsaldeko 19:00etan Udaletxeko Areto Nagusian.
- ✓ **Ekainaren 10ean** herritarrek egin dituzten proposamenak baloratzeko eta Udal Aurrekontuan zeintzuk txertatuko diren baloratzeko **irizpideen inguruko eztabaida** emango da. Saio hau nahi duen herritar ororentzat irekia izango da, eta Talde eragileko partaideak ere bertaratuko dira.
- ✓ Ondoren, **Udan, balorazio tekniko eta ekonomiko** egiteko tarteak izango dira.
- ✓ Irailetik aurrera, proposamen guztien artean 2016eko Udal Aurrekontuetan txertatuko ditugunak zeintzuk izango diren zehaztu beharko dugu saio irekien bitartez.

5. SAIIOAREN BALORAZIOA

Saioan parte hartu izanagatik eskerrak emanez, bukatutzat eman da bilera 2015eko apirilaren 21ean, 21:00etan